



ELDUINGO HIRI ANTOLAKETAKO PLAN OROKORRAREN INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN IRISMEN DOKUMENTUA

1.- AURREKARIAK

Hiri antolaketako plan orokorrek -aurrerantzean HAPO- nahitaez bete behar dute ingurumen ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura; horrela xedatzen baitute honako arau hauek: 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoak, 6. artikuluan; 3/1998 Legeak, otsailaren 27koak, Euskal Herriko Ingurumena Babesteko Lege Orokorrak, 41. artikuluan eta I A) eranskinean; eta 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, Planen Eta Programen Ingurumen Ebaluazio Estrategikoa Egiteko Prozedura arautzen duenak, 4. artikuluan.

Elduaingo Udala hasi da udalerriko Hiri Antolaketako Plan Orokorra egiten eta tramitatzen. 21/2013 Legearen, abenduaren 9koaren, 18. artikuluari jarraituz, Udalak 2019ko maiatzaren 9an bidalitako idazki batez eskatu du HAPOaren ingurumen ebaluazio estrategiko arruntaren prozedura hasi dadin, eta, ondore horietarako, hasierako dokumentu estrategikoa eta Planaren aurrerakina bidali ditu ingurumen ebaluaziorako.

Horri dagokionez, 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, 19. artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, 10. artikuluan xedatutakoaren arabera, planak eta programak prestatzerakoan ingurumen alderdiak bateratze aldera, ingurumen organoak irismen agiri bat egin behar du ingurumen azterketa estrategikoak izan behar duen hedadura, xehetasun eta zehaztapen maila finkatzeko. Aldez aurretik, dena den, kontsulta egingo zaie ukitutako administrazioei eta pertsona interesdunei.

Horrenbestez, 3/1998 Legearen, otsailaren 27koaren, 44. artikuluari jarraituz, eta 22/2016 Foru Dekretuan, ekainaren 19koan, xedatutakoarekin bat, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak dokumentu hau igorri du, Elduaingo Hiri Antolaketako Plan Orokorraren irismen dokumentua, hau da, 211/2012 Dekretuaren, urriaren 16koaren, 10. artikuluan jasotako erreferentziazko dokumentua.

2.- ELDUINGO HAPO-AREN PROPOSAMEN NAGUSIAK

Elduaingo Udalak ingurumen ebaluazio estrategikoari hasiera emateko bidalitako dokumentazioa honako hau da: aurrerakina eta hasierako dokumentua.

Aurrerakinak antolaketaren irizpideak eta helburuak definitzen ditu, hasieran, eta aukeren lehen analisi bat egiten du, bai egoitza garapenen balizko kokapenena bai kokapen bakoitzeko eraikuntza tipologiarena. Horren ondoren, hiri antolaketako proposamen bat egiten du, honako jarduketa hauek zehazten dituen:

Bizitoki garapen baten proposamena, 21 etxebizitza berriko egoitza gaitasunekoa HAPOaren indarraldirako (gehieneko etxebizitza kopurua, Tolosaldeko LPParen aurerrakinaren eta Lurralde Antolaketako Jarraibideen arabera). Honako hauek izango dira egoitza jarduketak:

- AD 1 - *Altsuondo*. Egoitzarako hiri lurzorua: 4 etxebizitza eta egoitzako 550 metro koadroko eraikigarritasuna planteatzen da, eraikuntza bakarrean, sestra azpiko solairu bat eta sestra gaineko hiru izango dituena.
- AI 1 - *Elizazpi*. Egoitzarako lurzoru urbanizagarria: 6 etxebizitza eta 750 metro koadroko eraikigarritasuna, partzeladun etxebizitza atxikiak. Profila sestra gaineko bi solairukoa izango da.
- AI 2 - *Plaza Zaharra*. Egoitzarako lurzoru urbanizagarria: 4 etxebizitza planteatu dira -500 metro koadroko eraikigarritasuna-. Plaza Zaharra gunen libreen sistema orokorraren esparruari atxikita geldituko da.



- Al 3 – *Beobi Gain*. Egoitzarako lurzoru urbanizagarria: 3 etxebizitza eta 750 metro koadroko eraikigarritasuna, partzela txikia duten etxebizitza atxikiak.
- Al 4 – *Echaurrea*. Egoitzarako lurzoru urbanizagarria: 4 etxebizitza eta 650 metro koadroko eraikigarritasuna. “Echaurrea eta erreka arteko belardia” gune libreen sistema orokorraren esparruari atxikita geldituko da. Esparru horretan lurzoru urbanizagarrira birsailkatzeko konpentsazio moduan, proposatu da antzeko azalera duen esparru bat birkalifikatzea, egungo partzelak baino interes txikiagoa duena, udalerria mendebaldean garatzekoa, lurzoru urbanizaezinera.

Jarduera ekonomikorako lurzoruaren proposamen gisa, dagoeneko hor dauden esparru industrialak finkatzeaz gain, planteatu da gune industrial berria sortzea ibaiaren ondoan, herriaren mendebaldeko muga, Munksjo paper fabrikaren ondoan.

Ekipamenduen antolaketari dagokionez, aurrerakinak, goian deskribatu den moduan, proposatzen du gune libreen bi sistema orokor berri sortzea, bata 1.442 metro koadrokoa, *Plaza Zaharra*, eta bestea 3.908 metro koadrokoa, *Echaurre eta Erreka arteko belardian*.

Lurzoru urbanizaezinari dagokionez, aurrerakinak adierazten du lurzoru urbanizaezinaren erabilerentzako ezarritako irizpideek ez dutela ezberdintasun nabaririk indarrean dauden Elduaingo Arau Subsidiarioetan definitutakoekin, gerora onartutako eta hierarkian gorago dagoen plangintzak, esaterako, Lurralde Antolaketako Jarraibideek, ezarritako baldintzez eta aldaketez gain.

3.- EGINDAKO KONTSULTAK

Behin Elduaingo Udalaren eskaera jasotakoan, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak ukitutako administrazioei eta publiko interesdunari egin beharreko kontsulten tramitea egin zuen, 21/2013 Legearen, abenduaren 9koaren, 19. artikuluan eta 211/2012 Dekretuaren, urriaren 16koaren, 9. artikuluan aurreikusitakoa. Fase horretan, honako entitate eta erakunde hauei egin zaie kontsulta:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritzako eta Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza.
- Urrietako Udala.
- Hernaniko Udala.
- GAZTELUKO UDALA
- Andoaingo Udala
- AYUNTAMIENTO DE BERAESTEGI
- IHOBE.
- EEE (Energiaren Euskal Erakundea).
- Uraren Euskal Agentzia (URA).
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Administrazioaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritza.



- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituraren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza.
- Kantauriko Ur Konfederazioko Uren Ikuskatzaitza.
- Gipuzkoako Uren Kontsortzioa.
- EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna).
- ENBA (Euskal Nekazarien Batasuna).
- Tolosaldea Garatzen S.A.
- Aranzadi Zientzia Elkarte.
- Eguzki talde ekologista.
- Ekologistak Martxan Gipuzkoa taldea.
- Haritzalde Naturzaleen Elkarte.
- Tolosaldeako Landa Garapen Elkarte Tolomendi.
- Tolosaldeko Hondakinen Mankomunitatea.
- Landarlan Ingurumen Elkarte.
- Itsas Enara Ornitologia Elkarte.

Era berean, hasierako agiria eskura egon da GFAko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren interneteko web orrian, (www.gipuzkoaingurumena.eus), herritar guztiek bidezko zat jotako ingurumen arloko ekarpenak egiteko aukera izan zezaten.

Erantzunak bidaltzeko epea bete ondoren, hauek izan dira erantzuna bidali dutenak:

- Kantauriko Ur Konfederazioak jabari publiko hidraulikoari eragiten dioten edo uholde arriskua duten hirigintza esparruen zerrenda atxiki du. Txostenak, jarraian, hainbat hausnarketa egiten ditu jabari publiko hidraulikoaren babesaren inguruan, esaterako, HAPOak baliabide hidrikoen eskariaren inguruko txostenak izan behar dituela, baita haien jatorriaren ingurukoak ere, eta dagoeneko hor dauden azpiegiturak proposatutako garapen esparruen hornidura bermatzeko duten gaitasuna justifikatzeko hornidura zerbitzuaren kudeatzailearen txostena ere izan beharko da. Halaber, adierazi du saneamenduaren irtenbidea zehaztu beharko dela proposatutako garapen esparruetarako. Uholde arriskuari dagokionez, txostenak agerian utzi du beharrezkoa dela HAPOa bateragarria izatea uholde arriskua duen jabari publikoaren polizia eremuko erabilerean mugekin, eta jakinarazi du AI- *Plaza Zaharra* eta AI-E 07-257 esparruetan proposatutako antolaketa muga horien aurkakoa dela.
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak txostena egin du Elduaingo udalerrian dauden babes zibilaren arriskuen inguruan. Horien artean dago uholde arriskua, arrisku sismikoa, basoko suteen arriskua eta salgai arriskutsuak garraiatzetik eratorritako arrisku teknologikoak.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak adierazi du Elduaingo HAPOan aurkeztutako helburuak bat datozela sail horren plan estrategikoekin, eta ildo horien garapena ebaluatu egingo dela osasunaren ikuspegitik, politika, plan eta proiektu guztietan.



- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintzako Zuzendaritzak jakinarazi duenez, Nekazaritza eta Abeltzaintzako LPSaren 10. artikuluan xedatutakoari jarraituz, udal plangintzak berriaz jaso beharko du LPSan definitutako "*Nekazaritza eta Abeltzaintzako eta Landazabala, balio estrategiko handikoa*" kategoriako lurzoru urbanizaezineko eremuen mugaketa, eta antolaketa kategoria batean sartuko diren erabileren araubideak aipatutako LPSari jarraitu behar dio. Halaber, gogorarazi duenez, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako Legearen 16. artikuluari jarraituz administrazioak balio agrologiko handiko lurzoruetan aurreikusitako edozein proiektuk edo jarduketak behar duela nekazaritza alorreko foru organo eskudunaren txostena, behin betiko onartu aurretik, eta beharrezkoa da nekazaritzaren sektorean duen eragina, oinarriko elementutzat kontuan hartuta nekazaritzako lurren okupazioa eta ustiatzeetan sortutako inpaktua, oinarri moduan kontuan hartuta Nekazaritzako eta Abeltzaintzako LPSan xedatutakoa.

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak jasagarritasun irizpideak aurkeztu ditu, natura ondarean eragina dutenak, baita udalerraren antolaketan kontuan hartu beharreko alderdi batzuek zerrenda bat ere. Zentzu horretan, azaldu du funtsezkoa dela HAPOak "*Babes bereziko*" lurzoru urbanizaezinen antolaketa kategoria bat definitzea, balio handiena duten espazioak babesteko, baita elementu natural esanguratsuenen babesa bermatzeko baldintzatzaile gainjarri multzo bat ere.

Aurrerakineko hirigintza planteamenduei dagokienez, adierazi du Zuzendaritza gehien kezkatzen duen proposamenetako bat dela AI-E1 07-257 industria gune berria, ukitu ditzakeen habitatak direla eta. Horrenbestez, eskatu du justifikatzeko industria gune horren beharra, eta ondo deskribatzeko esparruaren perimetroko zuhaitz formazioak, inpaktua doi-doi balioesteko eta inpaktu horren irismenarentzako eta tamainarentzako neurri prebentibo, zuzentzaile eta konpentsatzaile egokiak proposatzeko.

Proposatutako egoitza esparruei dagokienez, azaldu du AI-2 *Plaza Zaharra* eta AI-4 *Echaurrea* esparruetan erriberako basoak babesteko eta leheneratzeko neurriak hartu behar direla, eta iradoki du HAPOan "ingurumena leheneratzeko programa" bat txertatzeko eta bertan jasotzeko, besteak beste, ibaien inguruko leheneratze ekintzak, eta horien aurrekontua egiteko. Azkenik, txostenak adierazten du oso positibotzat jotzen dela AI-5 *Olondo Azpi*, AI-6 *Behobi Azpi* eta herrigunearen ipar mendebaldeari sailkapena kentzeko proposamena.

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak, gainera, klima aldaketaren sektoreko txosten bat ere egin du. Txosten horretan adierazten da planaren dokumentuan bertan klima aldaketaren alderdia indartu beharko litzatekeela, gai horren inguruko informazio berriagoari erreferentzia egin beharko litzaikeela, eta EAEn erabakiak hartzen laguntzeko eskuragarri dauden tresnak erabili beharko liratekeela –tartean, EAEko udalerriek beroketa globaletik eratorritako eraginen aurrean duten zaugarritasunaren analisia, GFAk udalerriei hiri antolaketan klima aldaketa integratzeko eskuragarri jarritako tresna, eta EAEko udalerrientzako berotegi efektuko gasen igorpena kalkulatzeko tresna—. Txostenak gomendio sorta bat dakar plana egiteko geroko faseetarako, eta eranskin moduan dakar Elduaini dagozkion zaugarritasunaren eta klima arriskuen fitxa.

- GFAren Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusiak jakinarazi du bere txostenean egokitzat jotzen dituela HAPOak egindako aurreikuspenak, lurzoruaren kontsumo zuhurra egiten baitu, garatu gabeko leku batzuetako hiri lurzoruaren sailkapena kentzean. Dena den, adierazi du AI-E1 07-257 eta AI-4 *Echaurrea* esparruak lurzoru urbanizagarri gisa sailkatu behar dela, eta ez hiri lurzorutzat, aurrerakinean jasota dagoen moduan. 8. planoan akats bat ere identifikatu du. Halaber, txostenak azpimarratzen duenez, AI-E1 07-257 esparruak eta AI-2 *Plaza Zaharra* esparruak Nekazaritza eta Abeltzaintzako LPSan "balio estrategiko handikotzat" jotako lurzoruak okupatzen dituzte. Beraz, lurzoru horien galera konpentsatu behar da, eta ondorio horietarako, iradokitzen du HAPOan AI-5 *Olondo Azpi* eta AI-6 *Behobi Azpi* esparruak, sailkapena kendu zaienak, "balio estrategiko handiko" lurzoru urbanizaezin kategorian sailkatzeko.



Halaber, txostenean adierazten da bloke etxebizitzak eraikitzea aukera hobea dela etxebizitza atxiki ugari eraikitzea baino. Azkenik, sistema orokorrean sartu ordez tokiko sisteman sartu beharreko bide batzuk identifikatzen ditu.

- Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen Zuzendaritzak adierazi du HAPOaren hirigintza dokumentuak ez duela proposamenik egin kultur ondarea babesteko araudiari dagokionez, eta ez duela jaso babestutako kultur ondarearen elementuen katalogorik edo babes proposamenik. Horrenbestez, txostenak soilik aztertzen ditu antolamendu proposamen bat aurkeztu den esparruetan kultur ondareari sortu dakizkiokeen balizko eraginak, eta eranskin bat dakar (CD batean), babestutako elementuen katalogoaren informazio eguneratuarekin. Alderdi horiei dagokienez, txostenak adierazten du ez dela hauteman arkitektura eta arkeologia ondareari sortutako zuzeneko edo zeharkako eraginik garapenak aurreikusi diren esparruetan. Halaber, gogorarazten du hirigintza dokumentazioan eta ingurumenekoan erreferentzia egiten ziola 6/2019 Lege berriari, maiatzaren 9koari, Euskal Kultura Ondarearenari. Horrez gain, azaleratzen du Elduainek ondare interesa duten elementu aberats eta ugariak dituela, tratamendu egokia merezi dutenak, eta gomendatzen du egun Arau Subsidiarioek babesten dituzten elementuen zerrendak berrikustea eta eguneratzea.
- Uraren Euskal Agentziak (URA) gogorarazi du, uren araudian xedatutakoari jarraituz, ezin dela baimendu jabari publiko hidraulikoan (JPH) edo zortasun eremuan egindako eraikuntzarik. Horrebestez, AO-2 *Plaza Zaharra* eremuan proposatutako garapenak berriz pentsatu beharko litzuke. Halaber, adierazi du JPHari eragiten dion jarduketa orok Kantauriko Uren Konfederazioaren baimena behar duela, URAk tramitatuko duena. Uholde arriskuari dagokionez, adierazi du bete egin beharko dituela Plan Hidrologikoaren 40.2. eta 40.5. artikuluek ezarritako mugak, eta, 07-257 esparruan zubi bat eraikitzen bada, Plan Hidrologikoaren 43. artikuluan ezarritako gainerako arau espezifikoak bete beharko dituela. Ur hornidurari dagokionez, gogorarazi du plangintza onartu aurretik zenbatu egin behar direla proposatutako hiri garapenetako ur eskari berriak, eta erakunde kudeatzailearen adostasun txostena atxiki behar dela, dauden azpiegiturak hornidura bermatzeko nahikoa direla dioena. Halaber, URAk azaleratu du udal titulartasuneko hondakin uren isurpenak daudela, nahitaezko baimenik gabekoak. Horregatik, eskatu du isurpen horiek erregularizatzeke, eta dagokion Kutsadura Murrizteko Plana gaineratzeko.

Irismen dokumentu hau igorri ondoren erantzunen bat jasotzen bada, hura Elduaingo Udalarik bidaliko zaio ahal bezain laster, kontuan hartu dadin HAPOa eta ingurumen azterketa estrategikoa egitean.

4.- INGURUMEN ARLOKO HELBURU ESTRATEGIKOAK, JASANGARRITASUN IRIZPIDEAK ETA ARAU ITURRIAK

Hiri Antolaketako Plan Orokorrak, udal lurzorua egiturazko antolaketaren oinarritzko tresna denez, aukera eman dezake ez soilik ingurumen alderdiak modu egokian txertatu eta hirigintzako eta azpiegiturarako jarduketetatik eratorritako ingurumen inpaktuak murrizteko, baita udalerrian ingurumen kalitatea hobetzeko ere. Gainera, HAPOa funtsezko tresna da udalerrian klima aldaketara hobeto egokitzeko eta isurpenak murrizteko, baita Agenda 2030eko Garapen Jasangarriaren Helburuetako (GJH) helburu asko lortzen laguntzeko ere. Ondore horietarako, HAPOak definitu egin behar ditu bertan azalduko diren ingurumen helburu estrategikoak eta jasangarritasunaren alorrekoak. Honako hauetan oinarritu behar dira, gutxienez:

- Ingurumenarekiko kalteak prebenitzeari lehentasuna ematea, kalte horiek zuzentzeko eta konpentsatzeko neurrien gainera; eta horretarako, ingurumen alderdiei dagokien garrantzia ematea HAPO egiterakoan.



- Lurzoruaren erabilerak esleitzerakoan, natur eta nekazaritza baliabideen kalitatea eta urrakortasuna kontuan hartzea, eremu batzuen eta besteen ingurumen kalitatea eta aurreikusitako erabilerak hartzeko duten gaitasuna bezalaxe.
- Lurzoru urbanizagarri berriak sailkatzeko erabakia behar bezala arrazoitzea, nahikotasuna eta egokitasuna adieraziz, eta benetako premiei erantzuteko behar-beharrezkoa den lurzorua bakarrik mugatuz.
- Dentsitate ertain edo handia duten eta erabilerak behar bezala uztartuak dituzten hirigune trinko eta anitzak lehenetsiko dira, dentsitate txiki edo oso txikiko egoitza-garapen berriak baztertuz. Era berean, etxebizitza bakanaren edo atxikiaren tipologia ere baztertu egingo da, hiri eredu bakan eta zehaztugabea bultzatzen baitute; gainera, tipologia horrek lur asko okupatzen du eta energia nahiz material asko kontsumitzen du.
- Bigarren bizileku izango diren etxebizitzaren eskaintza minimizatzea eta, oro har, lurraren kontsumoan oinarritutako ereduak ekiditea. "Etxebizitza hutsa" okupa dadin sustatzea.
- Oraingo hiri-bilbeentzako funtzionala eta birmoldaketa bultzatzea, betiere bilbe horiek birgaituz, berregituratuz edota berrituz, eta abandonatutako eremuak berreskuratzea, lurzorua nahiz baliabideak optimizatzeko estrategia gisa.
- Hiriaren zatiketa edo sakabanaketa ekiditea, erabilera edo jarduera ezberdinak behar bezala integratuta eta espazialki kohesionatuta jarrai dezaten ahalbidetuz, mugikortasun premia handirik sor ez dadin. Mugikortasun eskaera kudeatzea, oraingo banaketa modala oinez ibiltzera, bizikletara eta garraio publikora bideratuz.
- Gerta litezkeen hiri garapenak eta azpiegiturak aurkitzea, eta honako baldintza hauek ziurtatuko diren moduan antolatzea:
 - Natura baliabide baliotsuen gaineko eraginak minimizatzea.
 - Ur hornidurako sarea eta saneamendu sarea, garapen horien zerbitzu egokia bermatuko den moduan erabiltzeko aukera izatea.
 - Efizientzia energetiko pasiborako baldintza egokiak ezartzea.
 - Pertsonen eta salgaien mugikortasunaren beharrak murriztea.
- Lurzoru urbanizaezinen antolaketa egokia ezartzea, Nekazaritza eta Abeltzaintzako LPSak ezarritako antolaketa kategoriak eta Lurralde Antolaketako Jarraibide berriak -128/2019 Dekretuak, uztailaren 30ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolaketako Jarraibideak behin betiko onartzen dituenak, onartutakoak- aplikatuz, eta kategoria bakoitzari dagokion jarduera sustagarri, onargarri eta debekatuen matrizea definitzea. Helburua natura ingurunea hobetzea, ekosistemek zerbitzu ekosistemikoak emateko duten gaitasuna hobetzeko, baita nekazaritzako erabilerean eta baliabiden babesa eta paisaiaren kalitatea ere.
- Udalerriaren tokiko azpiegitura berdea zedarritzea eta plangintzan integratzea espazio naturalen eta erdi naturalen sare planifikatu eta erabilera anitzeko modura, biodibertsitateari euskarria emateko eta herritarrei zerbitzu ekosistemikoak emateko.
- Paisaia faktorea plangintzan txertatzea, Paisaiaren Europako Hitzarmenean ezarritakoari jarraituz babestu, kudeatu eta antolatu dadin sustatuz.
- Baliabideen balantzean (ura, energia eta materialak) ondorio kaltegarriak murriztea, sortutako hondakinak eta kutsatzaileak bezalaxe, bai eraikuntzan (eraikinak, egiturak, urbanizatzeko lanak, eta abar) eta bai funtzionamendu fasean; eta zikloak ixte aldera jotzea.
- Sorburu berriztagarrietan oinarritutako energia hornitzeko instalazio deszentralizatuak ezartzeko aukera ahalbidetzea.
- Ur baliabideak eta ur ingurunea -lurpeko edo lur gaineko ur kontinentalak- babestu, zaindu eta leheneratzea, Uraren Esparru Zuzentzarauaren helburuak lortzen saiatuta. Ildo horri jarraituz, uren arloan gaur egun indarrean dagoen araudiak ezarritako distantziak eta



zortasunak errespetatuko dira, eta era berean, jarduketak saihestu egingo dira akuiferoak kutsatzeko arriskua erakusten duten eremuetan.

Elduaingo HAPOa egitean, kontuan hartuko dira honako arau eta dokumentu hauetan jasotako jasangarritasun irizpideak eta printzipioak:

- Udalerrriak indarrean dagoen Tokiko Agenda 21 prozesu bat badu, bertan jasotako helburu estrategikoak.
- Agenda 2030eko Garapen Jasangarriaren Helburuak.
- Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020).
- Euskal Autonomia Erkidegoaren Ingurumeneko Esparru Programa (2020).
- 3/1998 Legearen, otsailaren 27koaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko lege orokorraren, 2., 5., 23., 25., 28., 30., 69. eta 83. artikulua.
- 2/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren, uztailaren 20koaren, Lur Legearen Testu Bategina onartzen duenaren, 2. eta 10. artikulua.
- 2/2006 Legearen, ekainaren 30ekoaren, Lurzoruari eta hirigintzari buruzkoaren, 3. artikulua.
- 42/2007 Legearen, abenduaren 13koaren, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoaren, 2. artikulua, eta 1/2014 Legegintzako Dekretuaren, apirilaren 15ekoaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Zaintzeko Legearen Testu Bategina onartzen duenaren, 2. artikulua.
- 1/2006 Legearen, ekainaren 23koaren, Urei buruzkoaren, 3. artikulua.
- 4/2015 Legearen, ekainaren 25ekoaren, Lurzorua Ez Kutsatzeko eta Kutsatutakoa Garbitzekoaren, 4. artikulua.
- 17/2008 Legearen, abenduaren 23koaren, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzkoaren, 6. artikulua.
- 211/2012 Dekretuaren, urriaren 16koaren, Planen eta Programen Ingurumen Ebaluazio Estrategikoa egiteko prozedura arautzen duenaren, 1. eta 2. artikulua.
- Hirigintza planeamenduak iraunkortasun irizpidez idazteko eskuliburua (IHOBE, 2005).

Honako hauek dira irismen dokumentu hau idaztean kontuan hartu diren ingurumen alorreko arau nagusiak, Elduaingo HAPOa egitean kontuan hartu beharrekoak:

Europako araudia

- Europako Kontseiluak 1992ko maiatzaren 22an emandako 92/43/EEE Zuzentaraua, habitat naturalak eta fauna zein flora basatia kontserbatzeari buruzkoa.
- 2000/60/EE Zuzentaraua, Ur Politiken Alorrean Batasun Mailako Esparrua ezartzekoa.
- 2006/118/EE Zuzentaraua, 2006ko abenduaren 12koa, Lurpeko Urak Kutsaduratik eta Narriaduratik Babesteari buruzkoa.
- 2002/49/EE Zuzentaraua, Zaratari buruzkoa.
- - 2010eko maiatzaren 19ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/31/EE Zuzentaraua, Eraikinen Efizientzia Energetikoari buruzkoa.

Estatuko araudia

- 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoa.



- 2015eko urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Lurraren eta Hiri Berritzearen Legearen Testu Bategina onartzen duena.
- 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa, eta naturaren zaintzari buruz garrantzizkoa den estatu mailako gainerako araudia.
- 43/2003 Legea, azaroaren 21ekoa, Mendiei buruzkoa.
- 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, Zaratari buruzkoa, eta 1367/2007 Errege Dekretua, urriaren 19koa, Zaratari buruko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duena, zonakatze akustikoari, kalitate helburuei eta soinu igorpenei dagokienez.
- 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Ur Legearen Testu Bategina onartzen duena, eta berori garatzeko erregelamenduak.
- 1/2016 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, honako hauen plan hidrológicoak berrikustea onartzen duena: Kantauri Mendebaldeko, Gualdalquivirreko, Ceutako, Melillako, Segurako eta Jucarreko demarkazio hidrografikoak eta Kantauri Ekialdeko, Miño-Sileko, Dueroko, Tajoko, Guadianako eta Ebroko demarkazio hidrografikoen alderdi espainiarra.
- 20/2016 Errege Dekretua, urtarrilaren 15ekoa, Kantauri mendebaldeko demarkazio hidrografikoaren eta Kantauri ekialdeko demarkazio hidrografikoaren alderdi espainiarraren uholde arriskua kudeatzeko planak onartzen dituena.
- 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, Hondakin eta Lurzoru Kutsatuei buruzkoa.

Autonomia erkidegoko araudia

- 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, ingurumena babesteko lege orokorra.
- 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena.
- 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa
- 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa.
- 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hots Kutsadurari buruzkoa.
- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa.
- 1/2014 Legegintzako Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko natura babesteko Legearen testu bateratua onartzen duena, eta naturaren zaintzari buruz erkidegoan indarrean dauden gainerako araudiak.
- 7/1990ko Legea, uztailaren 3koa, Euskal Kultura Ondareari buruzkoa.
- 17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzkoa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Klima Aldaketaren Estrategia 2050.

Gipuzkoako araudia

- 7/2006 Foru Araua, urriaren 20koa, Gipuzkoako Mendiei buruzkoa.



- 2/2013 Foru Araua, ekainaren 10koa, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana behin betiko onartzen duena.
- 18/2018 Foru Dekretua, maiatzaren 29koa, Klima Aldaketaren Kontra Borrokatzeko Gipuzkoako Estrategia 2050 - Gipuzkoa Klima 2050 onartzen duena

5.- INGURUMEN EBALUAZIOAREN XEDE DEN ESPARRU GEOGRAFIKOA. ALEGIKO UDAL MUGARTEAREN BALIABIDE ETA EREMU NABARMENAK

Ebaluatuko den esparru geografikoak Planean aurreikusitako jarduerak eragingo dituzten ondorio guztiak ebaluatzeko behar hainbatekoa izan beharko du, hirigintzako jarduerak ez ezik araudi aldaketek ingurumenean dituzten eraginak ere kontuan hartuta. Oro har, Elduaingo udal mugartea hartuko du, baina alderdi batzuek udal mugarteaz gaindiko lursail batek izan ditzakeen eragin azterketa beharko dute, esaterako, paisaian eta baliabide hidrikoan sortuko den eragina aztertzean.

Ingurumen ebaluazio hori xehetasun maila handiagoz egingo da hautabide batzuek eta besteek eragin handiko jarduketak aurreikusten dituzten eremuetan; esate baterako, hirigintza garapenak egitea aurreikusi den eremuetan.

Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusian dagoen informazio bibliografiko eta kartografikoa kontsultatu eta beste administrazio batzuetatik lortutako erantzunak kontuan hartu ondoren, ingurumen interes berezia duten honako baliabide eta espazio hauek hauteman dira Elduaingo udal mugartean:

- "ES2120013 Leitzarán ibaia" biotopo babestua eta kontserbazio bereziko eremua (KBE)

HAPOn araudia eta zehaztapenak bateragarriak izan beharko dira kontserbazio neurriekin, eta gunea babestu izendatzeko eta babesteko dekretuek ezarritako zonakatzearekin:

- 416/1995 Dekretua, irailaren 29koa, Leitzarán Ibaia Biotopo Babestu izendatzekoa.
- 34/2015 Dekretua, martxoaren 17koa, ingurune hidrikoari lotuak dauden kontserbazio bereziko eremuetarako (KBE) eta hegaztien babes bereziko eremuetarako (HBBE) arau orokorrak onartzen dituena.
- 215/2012 Dekretua, urriaren 16koa, eskualde biogeografiko atlantiarreko hamalau ibai eta estuario Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu, eta horien kontserbazio neurriak onartzen dituena.

Lurzoru urbanizaezinari buruz HAPOn ezartzen den araudiak eremu hori babesten lagundu behar du, eta berori kontserbatzeko planifikatzen diren neurriak aplikatzea erraztu. Xede horiei begira, KBErako egokia den baldintzatzaile gaingarri bat aplikatzea gomendatzen dugu; edo bestela, eremua oso-osorik lurzoru urbanizaezina antolatzeko Babes Berezia kategorian sartzea. Dena den, azkeneko hori erabakitzen bada, kategoria horri lotutako erabileren araubidea zehaztu egin beharko da, KBEaren kontserbazio helburuekin bateragarriak diren basogintza, nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerak ez eragozteko.

- **Baso naturalak eta erdi naturalak** HAPOn babestu egin behar ditu hoberen kontserbatutako hariztien, pagadien, haltzadien, ameztien eta hostozabalen baso mistoen masak eta unadak, horiek *Babes berezia* kategorian sartuz eta, ahal den heinean, kontserbazio aktiboko neurriak aplikatuz, esate baterako, titulartasun pribatukoak diren eta balio ekologiko handia duten basoak lurzoruaren udal ondarean sartuz edo lurraldea zaintzeko akordioak eginez, kontserbazioa eta masa helduagoetarako bilakaera bermatzeko. Ondore horietarako, iradoki da diagnosi espezifiko bat egitea, kontserbazio balio handiena duten unadak identifikatzeko – unadaren heldutasuna, egiturazko eta espezieen dibertsitatea, urritasuna eta abar bezalako alderdien arabera–.



- **Erkidegoaren intereseko habitatak** Era berean, saiatuko da herriko intereseko habitatak kontserbatzen eta hobetzen, zonakatze egokiaren eta lurzorua erabileraren araudien bidez, kontuan hartuta habitat bakoitzaren presentzia eta kudeaketa eskakizunak. Edozein kasutan, aurreko apartatuán adierazi den moduan, *Babes berezia* kategorian sartu beharko dira hoberen kontserbatutako erkidegoaren intereseko baso habitatak eta kontserbazioa nekazaritza edo abeltzaintza erabileren mendean ez dagoen erkidegoaren intereseko beste habitat batzuk Zentzu horretan, arreta eta babes berezia merezi dute, haien berezitasunagatik eta urritasunagatik, 7140 Trantsizio zohikaztegiak (istingak) habitatak hartutako lekuak, Muñotsa inguruan –Hezeguneen LPSak *Usabelartzako zohikaztegi* moduan sailkatuak–. Horietarako babes neurri espezifikoak hartu behar dira.
- **Arriskuan dagoen landaredia eta fauna** Udalerriak interes bereziko guneak ditu, bai bisoi eurparrarentzakoak bai muturluze piriniotarrarentzakoak –Leitzaran ibaia eta haren ibaiadar batzuk–, baita hegazti nekrofagoentzako interes bereziko bi gune ere, hegazti nekrofagoak kudeatzeko plan bateratuaren arabera. Gune horietan dagozkien kudeaketa planek zehaztutakoari jarraituko zaio.

Horrez gain, udal mugartearen zati bat EAEko esparruan hegaztiak babesteko gunean dago, Ingurumeneko eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko Aginduaren arabera. Beraz, aplikatu egin beharko dira agindu horren 3. artikuluan talka egitetik eta elektrokutatzetik babesteko neurriak.

Halaber, HAPOaren hasierako dokumentu estrategikoak aipatzen ditu Mehatxatutako Fauna eta Floraren Euskal Katalogoan sartutako zenbait flora eta fauna espezie aipatzen ditu. Populazio horiei eragitea saihesteko, HAPOak babes egokia aurreikusi beharko du katalogatutako espezie horien intereseko guneetarako, bertan jarduketa urbanizatzaileak edo antolaketakoak edo landa lurzoria ustiatzekoak aurreikusten badira, populazio horientzako mehatxagarriak izan daitezkeenak.

- **Nekazaritzarako gaitasun handiko lurrak** Elduainek Nekazaritza eta Abeltzaintzako LPSak “balio estrategiko handiko” lurzorutzat kalifikatutako azalera handia du Elduain ibaiaren ibarrean zehar. Lurzoru horiek galtzea edo narriatzea saihesteko da, eta, edozein kasutan, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko Legearen 16. artikuluari jarraituz, balio agrologiko handiko lurzoruetan aurreikusitako edozein proiektu edo jarduketa administratibok nekazaritza alorreko organo eskudunaren txostena beharko du onartu aurretik.
- **Paisaiaren kalitatea** Paisaiaren kalitatea mantentzea eta hobetzea kontuan hartu beharko da plangintzaren eskala guztietan, hasi egiturazko antolaketatik eta HAPOaren bidez egindako erabileren esleipenetik eta garapen plangintzan eta urbanizazio proiektuetan urbanizazio baldintzak ezarri arte. Horrez gain, eskala txikiagoan, iradoki da HAPOaren hirigintza fitxetan ezarritako garapen esparruetan ezarritako hirigintza jarduketek paisaian integratzeko azterketa bat izatea, 90/2014 Dekretuaren, ekainaren 3koaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolaketan Paisaia Babesteari, Kudeatzeari eta Antolatzeari buruzkoaren, 7. artikuluan jasota dagoen moduan.
- **Ur masak** Ur masen babesa jaso behar da HAPOan, hark bere gain hartuko baitu azaleko eta lur azpiko ur masen egoera ekologiko ona lortzea eta egoera ez okertzea. Ondore horietarako, ingurumen azterketa estrategikoak balioetsi beharko du nola eragingo dioten jabari publiko hidraulikoari HAPOak planteatzen dituen jarduketa aukerek, ez soilik zuzenean ibilguei eragiten dietenek, baita, adibidez, hondakin uren isurpenetatik sortutako zeharkako eraginek ere. Inpaktu horiek gutxitzeko neurriak ere proposatu beharko dira.

Lurzoru urbanizaezinen sailkapenean, ibilgu guztiak azaleko uren babesaren kategorian sartu beharko dira, eta dagozkion hirigintza fitxetan sartu beharko dira EAEko Ibaien eta



Erreken Ertzak antolatzeke LPSaren arabera errespetatu beharreko lekuak, eta, ahal den heinean, erribera leheneratzeko proposamena sartuko da.

Horrez gain, **lur azpiko ur masak** babestu beharko dira, udalerrriaren hegoaldean kokatutako akuiferoak –Tolosa akuiferoa, Urbeltza sektorea– kutsatzeko zaurgarritasun handia duten lekuak kutsatuko dituzten erabilerak eta lur azpiko ur gehiegi eraztea saihestuz.

Halaber, kontuan hartu behar dira, eta behar bezala babestu, Plan Hidrologikoaren Babestutako Eremuen Erregistroan sartutako gunek eta lekuak. Bertan daude Koloka eta Andoaingo ur bilketa, Leitzaran ibaia eta *Usabelartzako zohikaiztegietan* sartutako leku zohikaztsuak.

- **Kultura Ondarea osatzen duten ondasunak** HAPOn identifikatu egin behar dira, eta modu egokian babestu, bai izendatutako edo inbentarioan sartutako kultur ondasunak, eta bai balio arkeologikoa izan dezaketen eremuak edo gunek megalitikoak.

Gainera, Elduaingo hirigintza antolaketak kontuan hartu behar ditu ingurumen alorreko arazo edo alderdi hauek:

- **Klima aldaketa** HAPOk bere gain hartu behar ditu klima aldaketaren aurkako borrokaren irizpideak, bai gas isuriak **txikitzeari** –eraginkortasun energetikoa, energia berriztagarriak sustatzea, motordun mugikortasunaren beharrak murriztea, eta abar– bai ondorioetara **egokitzeari** dagokionez. Bi alderdi horien irizpideak zehazteko, kontuan hartu ahalgo dira *Klima aldaketaren ondorioak baloratzeko eta Gipuzkoako hirigintza plangintzan sartzeko tresnaren* (<https://www.gipuzkoa.eus/es/web/ingurumena>) dokumentazioan ezarritakoak, egokitze jotakoak, tresnak berak egiteko aukera ematen duen HAPOaren antolaketa proposamenen azterketa egin ondoren. Oro har, egokitzeko beharrei dagokienez, IHOBek egindako *EAEko udalerriek klima aldaketaren aurrean duten kalteberatasunaren eta arriskuaren ebaluazioak* Elduaingo klima aldaketaren arrisku nagusi gisa nabarmentzen ditu bero boladek giza osasunean, ibaien uholdeak hirian eta lehorte handieneko aldiak ugaritzeak jarduera ekonomikoetan izango dituzten eraginak.
- Zarata: Baldintzatzailea gorabehera, 213/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, Euskal Autonomia Erkidegoko hots kutsadurari buruzkoak, 23. artikuluan xedatutakoa betez, HAPOk hartzen duen esparruaren zonakatzeko akustikoa egin beharko da, aipatutako dekretuaren 20. artikuluan eta III. eranskinean zehaztutako eremu akustikoak kontuan hartuta; eta dokumentazio urbanistikoari zonakatzeko horren berri ematen duen plano bat erantsiko zaio. Halaber, aipatutako dekretuaren 37. artikuluari jarraituz, etorkizuneko hirigintza garapena izatea aurreikusten den eremu akustikoak, hirigintza kalifikazio aldaketak barne, Inpaktu Akustikoaren Azterketa bat izan beharko dute, hirigintza tramitazioa eta ingurumenaren alorreko egiteko.
- **Kutsatutako** **lurzoruak**
Lurzoruak kutsatu ditzaketen jarduerak dituzten lekuen EAEko inbentarioak eta ingurumen dokumentuan jasotako informazioak bost leku identifikatzen dituzte Elduaingo udalerrian, kutsatutako lurzorua izan ditzaketenak: hiru industria jarduerengatik eta bi hondakinak botatzeagatik edo abandonatutako zabortegeengatik. 4/2015 Legeak, ekainaren 25ekoak, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoak, xedatutakoaren arabera, kutsa dezakeen jarduera edo instalazio bat dagoen edo egon den lurzoru baten erabilera aldatzen bada, lurzoruaren kalitatearen deklarazioa egin behar da. Era berean, eremu horietako bakoitzaren fitxa urbanistikoetan jaso beharko da kutsatuta egon daitezkeen lurzorua daudela eta horrek dakartzan legeko betebeharrak.
- **Arrisku naturalak** 105/2008 Dekretuaren, ekainaren 3koaren, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoaren, 31 b)



artikuluari jarraituz, ingurumen azterketa estrategikoari antolaketa esparruaren arrisku naturalen mapa bat txertatu behar zaio. Ingurumen azterketa estrategikaok neurri zuzentzaileak ezarriko dituzte, dauden arriskuak txikitzeko edo handitzea saihesteko. Proposatutako antolamenduak ingurumen arrisku horiek kontuan izan beharko ditu erabilerak eta jarduerak arautzerakoan. Uholde arriskuei dagokienez, jarraitu egingo zaio *Uholdeak saihesteari eta araudi hidraulikoari buruzko araudi espezifikoa*, EAEko ibai eta erreka ertzen LPSan eta 1/2016 Errege Dekretuan, urtarrilaren 8koan, Plan Hidrologikoak Berrikustea onartzen duenean, xedatutakoari. Bestalde, higadura prozesuek ukitutako eremuei dagokienez, ingurumen azterketa estrategikoak eta HAPOak berak zainduko dute udalerrian behar bezala identifikatu direla lur horiek eta doi-doi definitu direla eta kontuan hartu direla lurzoru urbanizaezinaren kategorizazioak ezarritako antolaketaren baldintzatzaile gainjarri gisa (Nekazaritza eta Abeltzaintzako LPSaren 56. eta 72. artikuluen arabera).

6.- LURZORU URBANIZAEZINA ANTOLATZERAKOAN AINTZAT HARTU BEHARREKO INGURUMEN ALDERDIAK

HAPOak, lurzoru urbanizaezinari dagokionez, naturako eta nekazaritzako baliabideen erabilera iraunkorra bermatuko duen antolamendua ezarri behar du; eta horrek, gainera, babes egokia eman behar die baliotsuenak edota urrakorrenak diren elementuei. Antolaketa horretan udalerriko lurzoru urbanizaezin guztirako erabilerak eta jarduerak arautuko dira, eta horretako Lurraldea Antolatze Gidalerroetan eta Nekazaritza eta Basogintzako Lurraldearen Arloko Planean zehaztutako antolaketa kategoriak esleituko dira.

Lurzoru urbanizaezina kategoriatan banatzeko, eremu bakoitzaren ezaugarriak, eremu horien harrera gaitasuna, eta hartzen dituzten natur baliabideen urrakortasuna eta balioa hartuko dira oinarritzat. Ondore horietarako, ezinbestekoa izango da udal mugartearen ingurune fisiko eta biologikoaren aurreko diagnosi bat egitea, eremu bakoitzaren baliabideen, paisaiaren eta ekosistemen eta erabileren gaitasunaren egoera zehaztuko duena. Antolaketa horretan aintzat hartu beharko dira txosten honen aurreko 5. puntuan aipatutako alderdi desberdinak (Nekazaritza eta Basogintzako Lurraldearen Arloko Planaren arabera *Babes Berezikoko* kategoria eta *"Balio Estrategiko Handiko"* nekazaritza eta abeltzaintzako kategoria. Horiek erregularizatzerakoan kontuan hartuko dira Nekazaritza eta Basogintzako LAPean jasotako Erabilerak eta Jarduerak Arautze Matritzean kategoria horiei buruz ezarritako erabilerak.

Era berean, finkatu beharko dira lurzoru hiritarrezinean onargarriak diren jarduerak eta instalazioak kokatzeko eta garatzeko baldintzak, bai HAPOren araudian bertan bai horren inguruko ordenantza erregulatzailerik bereziak prestatuz eta onartuz. Besteak beste, honako alderdi hauek erregulatuko dituzte: hondakin uren bilketa eta tratamendu egokia, obren eta eremu narriatuen paisaia baldintzen lehengoratzea, pistak egitea, egiturak paisaian integratzea, heskaien zaintza eta landa-eremuaren zein naturaren ingurumen baldintzak hobetzeko beharrezkotzat jotzen diren beste alderdi batzuk.

7.- HIRI LURZORUA ETA LURZORU URBANIZAGARRIA ANTOLATZERAKOAN AINTZAT HARTU BEHARREKO INGURUMEN ALDERDIAK

Dokumentu honen 3. apartatuan aipatutako helburuekin eta irizpideekin bat, honako gomendio hauek hartuko dira kontuan hiri eremuak antolatzerakoan eta sektore urbanizagarri berriak mugatzerakoan eta antolatzerakoan:

- HAPOan aurreikusitako hirigintza jarduerak, proportzionaltasun irizpideak kontuan hartuta egikaritzeko dira, eta une bakoitzean benetan dauden premietara egokituko dira, lurzoruaren gehiegizko kontsumoa saihestuz.



- Saiatuko da erikuntzen jasangarritasuna eta egoitza eremuen eta jarduera ekonomikoen ingurumen kalitatea bermatzen, eraikuntza eta hirigintza ordenantzen edo eremu edo sektore horietako hirigintza fitxetako antolaketa xehatuaren bidez, ingurumen jasangarritasunaren eta klima aldaketa txikitzeko eta hartara egokitzeko irizpideen bitartez.
- Iraunkortasun energetikoa. Eraikuntza eta urbanizazio berrien eraginkortasun energetikoa bermatuko da. Jasangarritasun energetikoari buruzko azterketa bat txertatuko da, 4/2019 Legearen, otsailaren 21ekoaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoaren, 7. artikuluan zehaztutako edukiak garatuko dituena. Eraikinak diseinatuko dira eraginkortasun energetiko handiena eta energia berriztagarrien erabilera helburu hartuta. Ahal dela, *“energia kontsumo ia hutsala”* duten eraikuntzak lortzen saiatuko da, 2010/31/UE Europako Zuzentarauak, Eraikuntzen Eraginkortasun Energetikoari buruzkoak, definitzen dituen moduan. Halaber, argiteria publikoan ere ahal besteko aurrezpena eta eraginkortasuna bilatuko da. 4/2019 Legearen, otsailaren 21ekoaren, 7.5. artikulua xedatzen duen moduan, HAPOk erabilera publikoko birkargatzeko estazioak aurreikusi beharko dituzte hiri inguruetan, ibilgailu elektrikoak eta erregai alternatiboek bultzatutakoak dituztenek erabili ditzaten, baita bizikleten erabilera eta aparkatzea errazteko espazioak ere.

Bestalde, etxebizitzetara bideratutako eraikin berriak 4/2019 Legearen, otsailaren 21ekoaren, 43. artikulua eraginkortasun energetikoaren alorrean xedatutako obligazioen mende egongo dira:

- Eraikiko diren egoitza-eraikuntza berrietan, betiere energia ziurtagiriaren pean badaude, araudiz zehazten diren gutxieneko kalifikazioko irizpideak aplikatuko zaizkie.
 - Eraikigarritasun gutxieneko bat gainditzen duten hirigintza garapen berriek bero sistemen energia horniketako sistema zentralizatuak aurreikusi beharko dituzte, lehentasunez iturri berriztagarriak dituztenak, betiere teknikoki eta ekonomikoki arrazoizkoa bada.
 - Aparkaleku komunitarioetan, ibilgailu elektrikoentzako karga puntuen aurre sistemak jarriko dira, eta bizikletak erabiltzeko eta aparkatzeko guneak, araudiz zehazten direnak.
- Eraikuntzan lehengai berriztaezinen kontsumoa murriztea eta uraren erabileraren eta hornidura eta saneamendu sistemen eraginkortasuna.
 - Espazio publikoen birnaturalizazioa eta garraio azpiegiturak, naturan oinarritutako irtenbideak bilatzea, esaterako, hiri parkeak, soladura iragazgarriak, orubeak leheneratzea, fatxada berdeak eta abar. Lorategiak eta espazio berdean jasangarritasun irizpideekin diseinatzea.
 - Neurri eta jardunbide egokiak definitzeko, honako argitalpen hauetan deskribatutakoak hartuko dira kontuan:
 - *“Guía de Edificación sostenible para la vivienda en la CAPV”* (IHOBE).
 - *“Soluciones Naturales para la adaptación al cambio climático en el ámbito local de la CAPV”* (IHOBE).
 - *“Manual para el diseño de jardines y zonas verdes sostenibles”* (Udalsarea 21.)

Eremu eta sektore bakoitzeko hirigintza arau berezietan ingurumen baldintzen zerrenda bat jasoko da; eta baldintza horiek derrigorrez bete beharko dira bai antolamendu xehatuan eta bai urbanizazio proiektuetan. Besteak beste, urbanizazio lanak egikaritzeko aplikatu beharreko neurri babesgarri eta zuzentzaileak jasoko dituzte, eta bidezkoa denean, baita urbanizazio gastutzat jo behar diren neurri konpentsagarriak ere.



8.- JARDUKETEN ETORKIZUNEN KOKAPENA ARAZOTSUA EDO ONARTEZINA IZAN DAITEKEEN ESPARRUEN DEFINIZIOA

1. Lurzoru industrialeko jarduketa integratua (07-257 esparrua) Industria gune berri bat sortzeko lurzoru urbanizagarriko esparru bat sailkatzea planteatu den lekua, udalerraren mendebaldeko mugan, *Munksjo* paper enpresa kokatuta dagoen lekuaren aurkako ertzean, baldintzatzaile handiak daude ingurumen alorrean, planteatutako jarduketaren bideragarritasuna eta jasagarritasuna zalantzan jartzeko modukoak. Esparru horri eta bertarako egindako hirigintza proposamenari dagokienez, kontuan hartu behar dira honako alderdi hauek:
 - Esparruaren zati handi bat uholde arriskua duen gunean dago. Kantauriko Ur Konfederazioak adierazi duenez, esparruaren mendebaldeko guneari lehentasunezko fluxuaren guneak eragiten dio, eta proposatutako antolaketa Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduak eta Plan Hidrologikoak ezarritako mugen aurka doa, uholde arriskuen araberako erabilerei dagokienez.
 - Nekazaritza eta Abeltzaintzako LPSak *Nekazaritza eta abeltzaintza eta landazabala, balio estrategiko handiko azpikategoria* sartzen du eremu hori. Eremu horiei dagokienez, LPSaren arabera, 17/2008 Legearen, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzkoaren, 16.1. artikulua arabera, estrategikoak dira Euskal Autonomia Erkidegoarentzat, eta interes sozialeko ondasuntzat jotzen dira. Horrez gain, udalerriek babestutako lurzoru izaera dute, eta berariaz jaso beharko dituzte horrelakotzat. Halaber, LPSak jasotzen duenez, udal plangintzak ezingo du baimendu aurretik zeuden nukleoak eusten ez dien hazkunderik onartu, salbu eta LPLak kategoria horrekin kalifikatutako esparruetan.
 - Lekuak, gainera, ingurumen alorreko balio esanguratsuak ditu, Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketako Zuzendaritzak txostenean adierazi duenez. Esparruaren perimetroak hainbat harizti azidofiloren-baso misto atlantikoren masak ditu, eta erdiko guneak *Sega belardiak* 6510 Erkidegoaren intereseko habitatak hartzen ditu. Mendebaldeko gunea Zelai ibaiaren erriberan eta haren erriberako basoan dago, eta EAEko ibaiak eta errekek anolatzeko LPSan *"ondo kontserbatutako landaredia duen zatitza"* jotzen du.
 - Jarduketa Berastegiko udal mugartean kokatutako *Munksjo* enpresaren instalazioek osatzen duten industria nukleoaren ondoan planteatu bada ere, industria esparrua gune isolatu batean legoke, gainerako hiri sarearekin lotutarik gabekoan, eta ibilgailu pribatuarekin ez beste inola sarbide zaila duen industria nukleo bat handituko luke – mugikortasuna sortzen duen polo bat–. Litekeena da azken horrek motordun ibilgailuen joan-etorriak handitzea. Horrenbestez, hirigintza eta mugikortasun jasagarriaren printzipioen aurkako jarduketa bat da, eta klima aldaketari aurre egitera bideratutako plangintza irizpideen kontra doa.
 - Jarduketa ez dago aurreikusita lurraldeko plangintzan. Jarduera Ekonomikoak eta Saltokiak Antolatzeko EAEko LPSaren arabera, Elduain *"garapen txikiako udalerriak"* kategorian dago, eta horietarako *"jarduera ekonomikoak ezartzera zuzendutako lurzoruaren minetsionamendua hiri plangintzan mugatzea"*, eta bertan soilik onartu ahal izango dira *"toki esparruko lantegiak eta enpresa txikiak barne hartzeko egokiak ziango diren eremu txikiak [...] hutsik dagoen lurzorurako 3 ha-ko gainazal hedadurako azalerarekin gehienez ere. Lantegiak eta enpresa txikiak ezartzera zuzendutako poligono txiki horiek hiriguneei lotuta egon behar dute, hiriguneei hirigintza egituraren osagarri gisa, ez ordea udal mugapeari dagokion lurraldearen landagune isolatuetan."* Ondorioztatu daiteke, beraz, 07-257 esparruan planteatutako jarduketa ez datorrela bat LPSak ezarritako baldintzekin.



- Aurreraiketan ez da justifikatzen udalerrian jarduera ekonomikoetarako lurzoru berriak sailkatzeko beharra –dagoeneko jarduera industrialak dituzten bi gunek baititu–, ezta sailkapena hori hiri saretik hain urrun dagoen espazio batean planteatu izateko, ingurumen muga garrantzitsuak dituen batean. Hasierako dokumentu estrategikoak aipatzen du lurzoru hori *Munksjo* enpresaren instalazioak handitzera bideratuko dela, baina dokumentu batean ere ez da azaltzen jarduera industrialak handitzeko beharrik, eta ez da hautabide zehatzik ematen behar horiei erantzuna emateko.

Beraz, leku desegokia da hirigintza eraldaketa jasateko, arrisku naturalak eta ingurumen balioak dituelako. Hori egikaritzuz gero, nekazaritza eta ingurumen baliabide baliotsuak galduko lirateke, atzera bueltarik gabe, eta jasangarritasunaren eta ekintza klimatikoaren ikuspegitik hirigintza eta mugikortasun eredu desegokia sustatuko luke. Horrenbestez, esparru horretan hiri lurzorua sailkatzea baztertu beharko litzateke.

2. **AI-2 Plaza Zaharra.** Esparru hori uholde arriskua duen ibar batean kokatuta dago, lehentasunezko fluxu gune batek ukitzen du, eta dagozkion uholde guneek 100 eta 500 urteko itzulera aldia dute. Kantauriko Ur Konfederazioaren arabera, antolaketa Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduak eta Plan Hidrologikoak ezarritako mugen aurka doa, uholde arriskuen arabera erabilerei dagokienez. Esparruaren zati bat Nekazaritza eta Abeltzaintzako LPSak definitutako *Nekazaritza eta abeltzaintza eta landazabala, balio estrategiko handiko azpikategorian* dago sailkatuta. Muga horiek kontuan hartuta, aztertu egin beharko litzateke esparruari sailkapena kendu eta lurzoru urbanizaezinean sartzea. Gune librean sistema orokor bat ezartzetik eratorritako interes soziala dela medio, esparru hori hirigintzari dagokionez garatzea erabakitzen bada, bermatu beharko da araudi hidraulikoak ezarritako mugak betetzen direla. Halaber, hala badagokio, sektore horretarako Natura Ondare eta Klima Aldaketako Zuzendaritzak adierazitako neurriak aplikatu beharko dira, ibaiko ekosistema babeste aldera.

9.- INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN EDUKIA ETA IRISMENA

Elduaingo Udalak egin behar duen ingurumen azterketa estrategikoa (IAE) HAPOaren zati bat izango da, eta bertan identifikatuko, deskribatuko eta ebaluatuko dira ingurumenean sortutako balizko eragin esanguratsuak, plana eta tekniko eta ingurumenari dagokionez bideragarriak diren arrazoizko hautabideak aplikatuz eratorritakoak. Helburua da hura aplikatzean ingurumenean sortutako eragin negatiboak saihestea edo txikitzea eta ingurumenean eta jasangarritasunean eragingo duten ekintza positiboak planteatzea.

Ingurumen azterketa estrategikoak, gutxienez, 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, ingurumen ebaluazioari buruzkoak, IV. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izango du. Era berean, planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, ingurumenaren iraunkortasun txostenei buruz II. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izango du.

Eranskin horietan definitutako apartatuak garatzean, jorratu egin beharko dira dokumentu honetan adierazi diren alderdiak; administrazioek, erakundeek eta herritar interesdunek alegazioetan arazotsutzat jotako ingurumen arazoak; eta honako hauek:

9.1 Planaren eduki eta helburu nagusien laburpena, eta beste plan eta programa batzuekiko erlazioa

Ingurumen azterketa estrategikoan, HAPOren edukia jasoko da laburtuta (edo haren aipamena egingo da), eta laburpen horretan adieraziko dira aurrekariak, helburuak eta aurreikusitako jarduerak eta zehaztapenak; baita aintzat hartu diren gainerako hautabideak ere. Era berean, Planean mugatutako esparruen planifikazio zehatua egiteko aurreikusi diren jardueren eta garapen tresnen denbora planifikazioa ere azaldu egingo da.



Bestetik, HAPO horrek hiri antolaketako beste tresna batzuekin izan ditzakeen interakzioak, hala nola planarekin zerikusia izan lezaketen lurralde planekin eta plan sektorialekin izango dituen erlazioak aztertu beharko dira. Kontuan hartu beharko dira, gutxienez:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldea Antolatzeko Gidalerroak (LAG).
- Tolosako
- EAEko Nekazaritza eta Abeltzaintzako Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko ibaiak eta errekek (isurialde kantauriarra) antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana, eta honen 1. aldaketa.
- Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza Ekipamendurako Lurzoru Publikoa sustatzeko Lurraldearen Arloko Plana.
- Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa (2009-2021).
- Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana.
- EAEko Ingurumenaren Esparru Programa 2020.
- La Estrategia Vasca de Lucha Contra el cambio climático y la Estrategia guipuzcoana de Lucha contra el cambio climático.
- En el caso de que el municipio cuente con un proceso de Agenda local 21 vigente, se analizará la compatibilidad y contribución del PGOU a sus objetivos y acciones.

HAPOeko helburuek eta jarduerak, esparru horretan eragiten duten planen eta programen helburu eta xedapenekin duten koherentzia eta erlazioa zehaztuko da. Horrek, xede komunak lortzea izango du helburu, eta halaber, HAPOaren barruan jarduteko dauden hautabideak aztertzea, betiere gainerako programen helburuekin eta jarduketa ildoekin ezkatutzeak, ezadostasunak edo bateraezintasunak gerta litezkeen kasuetan.

Era berean, Aldaketaren eraginpeko eremuan aplikatu beharreko gainerako planekin sor litezkeen bigarren mailako ondorioak, metagarriak eta sinergikoak identifikatuko dira. Era horretan identifikatutako ondorioak, halakorik izanez gero behintzat, Planaren eraginak identifikatu eta ebaluatzeko atalean aztertuko dira.

97.2 Nazioartean, Europar Batasunean , estatuan, erkidegoan, foru mailan edota udalean ingurumena babesteko ezarritako helburuak, eta plana egituratzerakoan helburu horiek aintzat nola hartu diren egiaztatzea.

IAEan azaldu egin beharko da udal antolamenduan nola txertatu diren irismen agiri honen 4. apartatuan, ingurumena babesteari eta iraunkortasunari buruz adierazitako irizpideak, edota HAPOa egiterakoan ezarritakoak, halakorik izanez gero; eta horretarako, ahal dela behintzat, finkatutako edo proposatutako adierazleak eta mugak erabiliko dira.

9.3.- Elduain udalerrriaren ingurumenaren eta haren bilakaeraren ezaugarriak, klima aldaketa kontuan hartuta

Azterketak Elduain udalerrriaren ingurumenaren ezaugarrien deskribapena izan behar du, eta egungo egoeraren diagnosis egin behar du. Hori horrela, beharrezko azterketa espezifiko guztiak egingo dira, kontsultatu diren informazio iturriak eta bibliografia adieraziz eta lekuan bertan egindako lanaren eta erabilitako metodologiaren berri emanez.

Diagnostiko horretan deskribatu egingo da natur baliabideen, nekazaritzakoaren eta paisaiaren egoera, eta hiri eremuen, industrialdeen eta landa eremuen ingurumen kalitatea; era berean, bereziki zaindu edo babestu behar diren elementu edota baliabideak identifikatuko dira.

Atal horretan, gainera, udalerrriak bizi dituen ingurumen arloko presio eta arazo nagusiak aztertuko dira, arazo horiek HAPOan nola eragingo duten balioesteko, edota planak arazo horiek larriagotuko dituen aztertzeke.



Deskripzio horrek ez du ingurune fisikoaren ezaugarrietara mugatu behar; horrez gain, Planean ezarritako antolamenduaren ondorioz nabarmen alda daitezkeen hiri metabolismoko alderdiei edo aldaerei buruzko informazioa eman behar du; esate baterako, ur hornidura eta saneamenduko sistemak, edo mugikortasun sistema (garraio publiko/pribatua, motorduna/motorgabea), zarata mailak, eta abar.

Udalerraren egungo ingurumen egoera diagnostikatu ondoren, egoera horrek izan lezakeen bilakaeraren aurreikuspen bat egingo da, ingurumenean eragin dezaketen joera sozioekonomikoak –espero den klima aldaketa, esaterako– kontuan hartuta. Azken faktore horri dagokionez, klima aldaketak udalerrian eragin litzakeen inpaktuak identifikatzea komeni da; eta, era berean, aldaketa horretara egokitzeko batez ere zein esparrutan jardun beharko litzatekeen erabakitzea.

Behin Elduaingo ingurumenaren ezaugarri nagusiak deskribatu direnean, xehetasun handiagoz edo txikiagoz deskribatuko dira HAPOak jarduketa esanguratsuenak edo eragin handienekoenak kokatzea planteatu duen lekuak, adibidez, hirigintza garapenak egikaritzea aurreikusi den lekuak.

Era berean, 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa, garatzen duen dekretuak, hau da, Premiazko Neurriei buruzko 105/2008 Dekretuak, ekainaren 3koak, 31.1 artikuluan ezarritakoa betez, lurzoru horiek HAPOan jasotako aurreikuspenak hartzeko duten gaitasunaren azterketa aurkeztuko da. Horretarako aintzat hartuko da, besteak beste: uren administrazioak jabari publiko hidraulikoa babesteari eta eskaera berriei erantzuteko beharrezkoak diren ur baliabideei buruz emango duen informazioa, hala nola errepideen eta lehendik badauden gainerako azpiegituren gaian eskumena duten administrazioek egindako txostena, planean jasotako aurreikuspenak izan ditzaketen eraginei buruz.

Atal horretan, agiriari azkenean erantsiko zaizkion gai guztiei buruzko kartografia –eskala egokian egina– hartuko da oinarritzat.

9.4 Hautabideak aukeratzeko prozesuaren laburpen arrazoitua. Erabakitako hautabidea aukeratzeko arrazoiak.

Ingurumen azterketa estrategikoak, gainera, HAPOren helburuei erantzuteko teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak izan daitezkeen hautabide guztien ingurumen arloko azterketa bat jaso behar du. Horretan, aztertutako hautabide bakoitzak ingurumenean izan lezakeen eragina ebaluatuko da, eta planaren helburuei zenbateraino erantzungo zaien zehaztu, ingurumen arloko helburuei bereziki.

Hori horrela, azterketaren esparruan dauden ingurumen arloko elementu eta arazo nabarmenak identifikaturik, eta ingurumena babesteko helburuak ezarri ondoren, HAPO garatu ahal izateko eta bertan ezarritako helburuak betetzeko teknikoki, ekonomikoki, eta ingurumenaren aldetik bideragarriak diren hautabideak proposatu beharko dira. Eta horien artean, “0 hautabidea” sartu beharko da derrigorrez; hau da, udalerraren egiturazko antolamendua ez aldatzekoa.

Ahal denean, hirigintzako jarduerak marrazteko edo diseinatzeko hautabideak konparatu egingo dira, hautabidea horiek ezartzeko erabil daitezkeen kokalekuak bezalaxe.

Aurrerapen agiri honetan jasotako planteamenduak aintzat hartuta, hautabideen azterketa horretan jaso egin beharko dira honako analisi xehatu hauek:

- Bizitegirako garapen berriak kokatzeko hautabideak. Lehenik eta behin zehaztu behar da HAPOaren indarraldirako (8 urte) udalerrian beharko diren etxebizitzaren kopurua, eta kuantifikazio hori gizarte, demografia eta ingurumen alorreko parametroetan oinarrituta egingo da, betiere lurralde plangintzak kuantifikazio horri buruz ezartzen dituen muga barruan.



Egoitza gaitasuna zehaztutakoan, etxebizitza horiek kokatzeko eta banatzeko hautabideen azterketa bat egingo da, aintzat hartutako etxebizitzaren kokapen eta tipologia aukera desberdinek izango duten ingurumen eragina kontuan hartuta. Zentzu horretan, kontuan hartuta Elduaingo herrigunearen ezaugarriak, aintzat hartu beharko dira, besteak beste, uholde arriskua eta nekazaritza balio handiena duten lurzoruen babesa.

Azkenik, hainbat aukera aztertuko eta balioetsiko dira eraikuntzen dentsitateari eta tipologiari dagokionez: lurzoru gehiegi kontsumitzea dakarten dentsitate txikiko garapenak saihestuko dira eta, aldi berean, eraikin berriak herrigunean paisaia modu harmoniatsuan integratzen direla zainduko da.

- Jarduera ekonomikoetarako eta ekipamenduetarako lurzoru hautabideak. Analisiak, lehenik eta behin, udalerrian jarduera ekonomikoetarako lurzoru beharra aztertuko du, eta, behar hori egonez gero, hainbat aukera planteatu eta eztertuko ditu eskari horri erantzuna emateko. Dena den, beti jarraitu beharko die Jarduera Ekonomikoak eta Saltokiak Antolatzen LPSak ezarritako mugei, eta saihestu beharko du horiek gune hauskorretan edo ingurumen balio esanguratsuak dituztenetan edo erabilerak arrisku naturalengatik mugatuta dituztenetan jartzea.

Nolanahi ere, hautabideen azterketan adierazi beharko da zein metodologia erabili den, eta zein neurritan kontuan hartu diren ingurumen alderdiak, alderdi tekniko eta funtzionalak, eta alderdi ekonomikoak garatu behar den irizpide anitzeko azterketan. Azkenean aukeratutako hautabidea ez badator bat ingurumen balioespen onena daukan hautabidearekin, hori aukeratzeko arrazoiak behar bezala azaldu beharko dira.

Txosten horri, proposatutako hautabide guztien kokalekua eta ezaugarriak adierazten dituen dokumentazio kartografikoa erantsiko zaio.

Klima aldaketari dagokionez hautabideak balioesteko eta horietan eraginak txikitzeko eta klima aldaketara egokitzeko, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak aipatutako Klima aldaketaren ondorioak baloratzeko eta Gipuzkoako hirigintza plangintzan sartzeko tresna du eskuragarri, udalei eskaintzen diena –publiko dago Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren web atarian: www.gipuzkoaingurumena.eus.

9.5 HAPOeko zehaztapen eta jarduketa ezberdinek ingurumenean dituzten eragin adierazgarrien identifikazioa eta balioespena.

Identifikatuko da eta balioetsiko da nola eragingo duten HAPOan aurreikusitako jarduerak ingurumeneko elementu desberdinetan, besteak beste honako hauetan:

- Habitata eta espezie urriak edota interesgarriak.
- Balio estrategiko handiko nekazaritza lurak eta nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak.
- Lurzoruaren artifizializazioa eta degradazioa
- Ur araudiaren arabera babestutako ur masak eta eremuak.
- Paisaia
- Hiri ingurunearen kalitatea, zaratari edo trafikoari dagokienez.
- Giza osasuna.
- Ondare monumentala eta arkeologikoa.

Halaber, aztertu beharko da zein neurritan eragiten dien HAPOn aurreikusitakoak alderdi hauei:

- Mugikortasun motorduna eta motorgabea sortzea.



- Ura eta energia bezalako baliabideen kontsumoa.
- Kutsatzaileak isurtzea eta hondakinak sortzea.

Aztertutako inpaktuek zeharkako efektuak, metatze efektuak, efektu sinergikoak, epe laburreko, ertaineko eta luzeko efektuak, behin betiko eta aldi baterako efektuak, eta efektu positiboak eta negatiboak jaso beharko dituzte.

Identifikazioak eta balorazioa ez da mugatuko antolatutako esparrua fisikoki eraldatzean sortutako zuzeneko inpaktuetara (esaterako, lurra urbanizatzeari artifizializatzea). Kontuan hartu beharko ditu proposatutako antolaketa ingurumenean sortutako zeharkako inpaktuak edo erabileren eta jardueren erregulazioak sortutakoak (adibidez, hondakin urak areagotzea etxebizitzaren edo jarduera ekonomikoen kopurua handitu delako, etxebizitzak zarata gehiago jasatea jarduera industrialak ezarri direlako eta abar).

Detektatutako inpaktuen garrantzia zehazteko, kontuan hartuko da 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoak, III. eranskinean, eta 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, Planen eta Programen Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazio Estrategikoa egiteko Prozedura arautzen duenak, III. eranskinean xedatutakoa.

2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoak, VI. eranskineko 8. apartatuan zehaztutako terminologia erabiliz, identifikatutako erasan bakoitzaren magnitudea eta intentsitatearen ezaugarriak zehaztu eta balioetsiko dira. Horretarako, eragina behar bezala deskribatzeko eragin adierazleak (adierazgarriak, esanguratsuak, baztertzailak, zenbakarriak eta identifikatzen errazak) eta eraginari dagokionez gutxienezko muga onargarriak finkatzeko ingurumen arloko kalitatezko helburu zenbait zehaztuko dira, indarreko legeria erreferentzia modura hartuz, eta baita eskumeneko organoen jarraibideak ere, kasu bakoitzean.

Era berean, balorazio horretan erabakiko da, hala egokitzuz gero, HAPOaren barruan zeintzuk diren indarreko lurralde, hirigintza eta ingurumen arloko plangintzarekin bateraezinak diren jarduketak, edota ingurumenean ondorio kritikoak eta onartezinak sortuko dituztenak. Kasu batean zein bestean, jarduketa horiek aldatu edota baztertu egin beharko dira.

Azkenik, egokiago jotzeagatik inpaktuen ebaluazioa prozesuaren ondorengo beste fase batzuetara atzeratzen diren alderdiak arrazoitu egingo dira.

9.6 Ingurumen integrazioko neurriak

Ingurumen azterketa estrategikoak neurriak definituko ditu HAPOa aplikatzean ingurumenean sortutako edozein eragin negatibo murrizteko eta, ahal dela, konpentsatzeko, baita aldaketa klimatikoan duen eragina murriztekoak eta hartara egokitzekoak ere.

Halaber, HAPOan ingurumen alderdiak sartzek ez luke mugatu behar gerta litekeen inpaktu bati erantzuteko neurriak ezartzera; izan ere, neurri horiek osatuz, ezarri beharko lirateke udalerriko ingurumen arazoak konpontzen lagunduko duten eta ingurumen kalitate hobea lortzen lagunduko duten neurriak.

Horrela, Elduaingo HAPOaren ingurumen integrazioa honako neurri mota hauek hartuz egin beharra dago:

- Ingurumen alderdiak kontuan hartzea lurraldea planifikatzerakoan eta hiria diseinatzerakoan; esate baterako, lurzoru urbanizaezina antolatzerakoan, natur balioen babesa bermatzea; ondorio kaltegarriak eragin ditzaketen jarduerak arautzeko ordenantzak ezartzea; garapen berriak ezartzeko, oso sentiberak ez diren kokalekuak aukeratzea, eta abar. Neurri horiek prebentziozkoak izaten dira normalean (edo zuzentzaileak, lehendik badauden ingurumen arloko arazo edo inpaktu jakin batzuen kasuan), eta ohikoan ez dute berriazko aurrekonturik eskatzen.



- HAPOaren zehaztapenak garatuko dituzten planen eta proiektuen ingurumen talka negatiboak saihesteko, zuzentzeko edo konpentsatzeko neurriak. Neurri horiek egikaritze proiektuen zati bezala hartuko dira, eta ondorioz, proiektuen aurrekontuetan jaso beharko dira. Horietako asko zehaztu egin beharko dira planarekin edo garapen proiektuarekin batera. Baina, edozein kasutan ere, HAPOak neurri horiek identifikatu egin beharko ditu, horien gutxienez karakterizazio bat egin, eta garapen planetan eta proiektuetan nahitaez jaso beharrekoak diren zehaztu.
- Udalerriko ingurumena hobetzeko jarduketak, degradatutako espazioen leheneratze ekologikoa eta/edo paisaiarena edo espazio natural edo erdinaturalen –azpiegitura berdea– funtzionaltasun ekologikoa hobetzea xede dutenak.

Jarduera horiek finantzatu ahal izango dira jardueretako bakoitzaren egoeraren eta aurrekontua izatearen arabera. Udal aurrekontuen kontura egingo dira, GFAREN eta Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza deialdien bidez, edo hirigintza jarduketan ondorioz galdutako kapital naturalagatik jasotako osabidezko neurrien kasuan, hirigintza gastu bezala.

Neurri mota horiek izan daitezke, adibidez, urbanizazio esparruetan dauden ibilguen gertuko erribera gunek leheneratzekoak, beste gunek degradatu batzuk berreskuratzekoak, azpiegitura berdearen konektagarritasun ekologikoa eta funtzionaltasuna hobetzekoak, paisaiak hobetzeko proiektuak, habitatak leheneratzekoak edo biodibertsitatea sustatzekoak eta abar.

Hori horrela, leheneratu beharreko kokalekuak edota ingurumen baldintzak hobetzeko jarduerak identifikatu eta lehentasun-hurrenkera zehaztu egin beharko lirateke HAPON, jarduera horiek gauzatzeko programa bat ezarrita.

Bestalde, 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, Ingurumen Ebaluazioarenak, agintzen duen moduan, ingurumen azterketa estrategikoan jaso beharko dira klima aldaketaren gaineko eragina arintzeko eta aldaketa horretara egokitzeko beharrezkoak diren neurriak. Horretarako, erreferentzia modura erabil daitezke IHOBEN prestatutako gida metodologikoak.

Ingurumen integrazioko neurriak HAPOaren hirigintza dokumentazioan jaso beharko dira, horien kostu ekonomikoa eta finantzaketa moduak zenbatetsi beharko dira, eta egikaritzeko plangintza bat ezarri beharko da. Era berean, HAPOa garatzeko plan eta proiektuetan derrigorrez aintzat hartu beharreko neurriak zehaztu egingo dira.

9.7 Ingurumena zaintzeko programa, planaren eraginei dagokienez

Ingurumen azterketa estrategikoan jaso beharko da HAPOak ingurumenean izan ditzakeen eraginak zaintzeko programa bat, identifikatutako inpaktu garrantzitsu bakoitzaren jarraipena egin ahal izateko, neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileak betetzeko eta horiek eraginkorrak izateko, baita HAPOan zehaztutako ingurumen helburuak lortzeko ere.

Horretarako, programak ondorengoei buruzko informazioa jaso beharko du aldian-aldian:

- Proposatutako ingurumen helburuen betetze maila.
- Plana martxan jartzetik etorritako ingurumen ondorio kaltegarrien garrantzia.
- Neurri prebentibo, zuzentzaile, eta dagokionean, konpentsatzaileen ezarpena eta horien eraginkortasuna, eta neurri horiek planaren eta egikaritze proiektuen segidako garapen dokumentuetan sartzea.
- Aurreikusi ez diren baina ingurumeko elementuetan azaldu diren ingurumen ondorio kaltegarrien identifikazioa.
- Kasuan kasuko sektorean (ura, hondakinak, zarata, kutsatuak egon daitezkeen lurzoruak, errepedeak, jarduera sailkatuak, eta beste) eskumena duten erakunde edota



administrazioek bidezko baimenetan ezarritako ingurumen baldintzak betetzea, baita udal mailako baimenetan ezarritakoak ere.

Xede horri begira, ikuskapen programak honako datuak jaso beharko ditu:

- Begiratu egin beharko diren ingurumen sistemak, alderdiak edo aldaerak identifikatzea.
- Egin beharreko jarraipen eta kontrol jarduerak, bakoitzaren metodologia (datuak hartzeko estrategiak, aldizkakotasuna eta abar) eta kronograma adierazita.
- Jarraipen horretan erabiliko diren adierazleak, bakoitzaren unitateak eta gehieneko edo erreferentziako mailak adierazita. Adierazle modura erabili ahal izango dira agiri honetako 9. atalean iradokitakoak, edo egokitzat jo daitezkeen beste batzuk.
- Ingurumen jarraipena egiteaz arduratuko diren pertsonak edota erakundeak.
- Egin beharreko txostenen edukia eta aldizkakotasuna.
- Aurreikusi den aurrekontua.

9.8 Laburpen ez teknikoa

Ingurumen azterketa estrategikoan helarazitako informazioaren laburpen ez tekniko bat idatzi beharko da, informazio zehatza eta publiko orokorrak ulertzeko modukoa emanaz.

Laburpen horretan, honakoak jasoko dira gutxienez: HAPOa egitearekin lortu nahi diren helburu orokorrak; aztertu diren hautabideak; horietako bakoitzak ingurumenean eragingo dituen ondorioen laburpena; eta azkenean erabakitako irtenbidea edo irtenbideak aukeratzeko arrazoiak.

Laburpen horren osagarri gisa, diseinatutako neurri zuzentzaileak deskribatuko dira, eta herritarren zein administrazioen parte-hartze prozesuko ondorioak adierazi.

Era berean, alderdi aipagarrien dokumentazio grafikoa erantsiko zaio.

9.9 Hautabideen eta neurri prebentibo, zuzentzaile eta konpentsatzaileen bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostena

Hautabideen azterketari erantsiko zaio gutxi gorabeherako azterlan ekonomiko bat, kostu onura eta ekonomia-finantza azterketak aintzat hartuta, eta, ahal den neurrian, ingurumen eta gizarte alorreko kanpoko gastuen azterketa ere sartuta.

Halaber, apartatu horretan sartuko da HAPOa aplikatzeak izan ditzakeen eragin negatiboak prebenitzera, murriztera edo konpontzera bideratutako neurrien kostuaren zenbatespen eta/edo aurrekontu xehatu bat, bermatzeko bertatik eratorritako ingurumen kostuak internalizatzen direla. Neurri horiek finantzatzeko moduak ere sartu beharko dira, Elduaingo Udalaren kargura egin beharrekoak eta, hala badagokio, hirigintza proiektu edo jarduketan sustatzaileek hartu beharrekoak bereiziz.

9.10. Jasangarritasun energetikoaren inguruko azterketa

4/2019 Legearen, otsailaren 21ekoaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoaren, 7. artikuluari jarraituz, HAPOak jasangarritasun energetikoaren azterketa bat izan behar du, 7.3. artikuluan zehaztutako edukiak garatzen dituenak:

- Jasangarritasun energetikoaren eskakizunetara egokitzearen ebaluazioa.



- Energia berriztagarriak eraikinetan eta azpiegituretan ezartzearen ebaluazioa.
- Mugikortasun azterketa, energia kontsumoarekin lotuta, garraio pribatuaren erabilera ez beste aukerak eta motorrik gabeko mugikortasuna eta mugikortasun eza sustatzeko politikak barne.
- Kanpoko argiteria publikoaren azterketa, gune publiko bakoitzarentzako argi maila eta denbora egokienak ebaluatzeko.

10.- INGURUMEN EBALUAZIOAN ETA IKUSKAPEN PROGRAMAN AINTZAT HARTU BEHARREKO ADIERAZLE KUANTITATIBO EDOTA KUALITATIBOEN PROPOSAMENA

Hautabideen ingurumen ebaluazioa egiteko eta ikuskapen programarako hautatutako adierazleak adierazle konbinaketa bat izango dira, eta aukera emango dute egiaztatzeko betetzen direla, alde batetik, HAPOak bere gain hartzen dituen ingurumen helburuak, eta, bestetik, plana garatzen den bitartean aurreikusitako ingurumen erasanek. Era horretan, ingurumen helburuak betetzen ez badira edo horietan aldaketak sortzen badira, neurri zuzentzaile osagarriak txertatu ahal izango dira.

Ingurumen adierazleak:

- Zehaztutako ingurumen helburuekin eta irizpideekin lotuak egon behar dute, HAPOa egiten eta ezartzen esku hartzen duten eragileei erantzukizunak finkatzen lagunduko dien benetako kudeaketa tresna moduan funtziona dezaten.
- Neurgarriak izan behar dira, eta denbora serie jakinetan aztertzeko modukoak. Denboran zeharreko aldagarritasuna adierazteko modukoak izan behar dira, haiek aztertea zilegi izan dadin, joera negatiboak prebenitu edo zuzentzeko.
- Gutxi izan behar dira kopuruan, eragindako eragile guztiek erraz ulertzeko xedez. Horretarako, sinpleak eta interpretatzen errazak izan behar dira.
- Eskuragarri egon behar dute, adierazle horiek lortzeko informazio iturri askotara jo beharrik gabe.

Elduaingo udalerrriaren ezaugarriak kontuan hartuta, eta kontuan hartuta hasierako dokumentuan jasotako planteamenduan, adierazle erabilgarri batzuk erabili daitezke lurzoruaren kontsumoa (artifizializatutako azalera), lurzoruari eta nekazaritzako ustiategiei (nekazaritzako ustiategien kopurua, balio estrategiko handiko azalera) sortutako eragina, uholde arriskua duten etxebizitza edo eraikuntza kopurua, baso mota ezberdinen eta intereseko beste habitat batzuen azalera eta abar balioesteko.

11.- INFORMAZIO ETA KONTSULTARAKO MODALITATEAK

21/2013 Legearen, abenduaren 9koaren, 21. eta 22. artikuluetan eta 211/2012 Dekretuaren, urriaren 16koaren, 12. artikuluan informazio eta kontsulta modalitateen inguruan xedatutakoari jarraituz, Elduaingo Udalak honako jarduketa hauek egingi ditu HAPOaren prozedura substantiboan aurreikusitako tramiteen barruan:

- a) Ukitutako herri administrazioei eta herritar interesdunei kontsulta egingo die, planaren edo programaren alde aurreko bertsioari eta ingurumen azterketa estrategikoari buruz.
- b) Plan edo programaren hasierako bertsioaren eta ingurumen azterketa estrategikoaren informazio publikoa, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarki bat jarritz. 45 egun izango dira, gutxienez, aztertzeko eta oharrak helarazteko.

Hori guztia egiteko orduan, ukitutako administrazio publikotzat eta publiko interesatutzat joko dira Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak irismen agiri hau egiteko kontsultatutako administrazio,



entitate eta pertsonak —agiri honetako 1. apartatuan zehaztutakoak—, baita plan izapidetzeko prozesuan zehar Udalak identifikatu ditzakeen bestelako erakunde eta interesatuak ere (ukitutako partzelen jabeak, herritar elkarteak eta abar).

12.- INGURUMEN ADIERAZPEN ESTRATEGIKOAREN ESKAERA ETA JENDAURREKO EPEALDIAREN OSTEAN PLANEAN IZAN DAITEZKEEN ALDAKETAK

21/2013 Legearen, abendauren 9koaren, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoaren, 24. eta 25. artikuluetan eta 211/2012 Dekretuaren, urriaren 16koaren, Planen eta Programen Ingurumen Ebaluazio Estrategikoa egiteko Prozedura arautzen duenaren, 13. artikuluan xedatutakoari jarraituz, plana edo programa behin betiko onartu aurretik Elduaingo Udalak Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiari eskatuko dio ingurumen adierazpen estrategikoa igortzeko (ingurumen oroitidazkia, 211/2012 Dekretuaren terminologiaren arabera). Eskaera horretan ingurumen azterketa estrategikoen espediente osoa sartu beharko du, hauek osatutakoa:

- HAPOaren hirigintza dokumentuak.
- Ingurumen azterlan estrategikoak.
- Dagokion araudi sektorialaren arabera nahitaezkoak diren txostenen kopiak eta kontsulta eta informazio publikoko tramiteetan egindako alegazioak eta haien erantzunak.
- Laburpen dokumentu bat. bertan, Elduaingo Udalak deskribatu beharko du nola integratu diren Planaren azken proposamenen ingurumeneko alderdiak, ingurumen azterketa estrategikokoak, eta nola egokitu den irismen dokumentura, zeintzuk izan diren egindako kontsulten emaitzak eta nola hartu diren kontuan.

Halaber, kontuan hartu beharko da plana tramitatzean eta gero kontsulta eta informazio publikoko tramitearen ondoren aldatutako proposatzen badira, ingurumenen ebaluatu gabeko eragin nabarmenak izan ditzaketenak eta, edozein kasutan, 211/2012 Dekretuaren, urriaren 16koaren, 4. artikuluan jasotako kasuren bat bada, Udalak zuzendaritza honi jakinarazi beharko dio, eta plan edo programan aldatutako alderdiak ebaluatzeko beharrezko dokumentazioa bidali beharko du.

Donostia, 2019ko urriaren 29a

INGURUMENENKO ZUZENDARI NAGUSIA

Sin.: MÓNICA PEDREIRA LANCHAS



